

POSESIOAZ...

E. FROMM-ek «edukitzea» oso erraza dela iruditzen zai-gula esaten zuen; denok bait dugu zerbait: auto bat, dirua, etxea, janaria, etab. Hala eta guztiz ere, «eduki»-aren aldetik begiraturaz, «eduki» honek ez du hizkuntza guztietan esannahi berbera. Adibidez, hebreoz «jesh li»k (niretzat da) esan nahi du. Guk «eduki» esaterakoan, propietate pribatuaz berdintzen dugu eta propietate pribatua agertu zenean sortu zela hitza bera ere esango genuke. Ez da gizarte funtzioaletan agertzen, hots, posesio bat erabilia izateko da. «Izan»-ek berriz existitzea edo errealitatean egotea suposatzen omen du. Errealitatea, existentzia, egiaztasuna eta konsistentzia omen da.

«Izan» erabiltzerakoan, ez naiz gizaki baten propietateaz edo posesioaz ari, existentziaz baizik: adibidez, zoriontsu naiz, zuria naiz... Munduaren eta NI-aren aurrean agertzen zaidan munduan kokatzen naiz.

«Eduki» esatean, munduarekiko dudak harremana propietate eta posesiozkoa omen da. Mundu osoa nereganatu nahi dut eta azkenean, Ni neu ere bere hatzamarretan barneratzen naiz.

Gaurko gizarte honetan, edozertaz ari garela ere, posesio honen zentzurik ez dugu inolaz galtzen: «arazo bat dut», «insomnioa dut», «andrea eta haurrak ditut», etab. Duela urte batzuk,

«arazo bat dut» esan beharrean, «arazoz beteta nabil» edo «larri nabil» esango zela uste da. «Insomnia dut» en ordez, «ezin dut lorik egin», etab.

Hitz egiteko era honekin badirudi enajenatu egiten garela, hau da, erruak besteei botatzen dizkiegula. Zeren eta askotaz subjetoagoa gertatzen da «arazoz beteta nabil» esatea, «arazo bat du» esatea baino. Esperientziako NI-a posesioagaitik aldatzen da. Nik sentitzen dudana, nere posesioan eraldatzen dut. Nik ezin dut arazo bat eduki, zerbait abstraktoa bait da eta ezin da inoren posesiopean egon. NI-a nere imajinazioak eman duen fruituaren menpe gelditzen da.

Honela bada, erdal hizkuntzaren erabilera euskerarena baino posesioagoa gertatzen dela esatera ausartuko nintzateke: erdal hizkuntza, enajenatuagoa gertatzen dela euskera baino. Esatekoa dugu, gaur egun, erdararen eragina dela eta, euskarak ere erdal erabilera asko dituela (gehienbat itzulpenetan) baina hiruzpalau adibide jarriz gero, zera azal dezaket:

«Tengo sueño» esaterakoan adibidez, badirudi logure izatearen errua fisikoa dela eta ez gizakiarena. Orduan, loguraz ari gara eta NI logurearen menpe gelditzen naiz. Euskaraz ordea, «logure naiz» esaten dugunean, badirudi (NI) nere pertsona osoa dela logure eta nere dela NI logure egotearen errua.

Berdin gertatzen da kasu honekin: «tengo hambre» (gose naiz) «tengo sed» (egarri naiz), «tengo miedo» (beldur naiz)... Badirudi, akzioa neregan dagoen zerbait dela baina ez ordea nere. Euskaraz ez da kasu berbera ematen: gosearen, egarriaren eta beldurraren akzioa NI-aren barne gertatzen da eta ez NI gosearen, egarriaren edo beldurraren menpe egon, gazteleraz kasu.

«Izan»-en konnotazioa subjetoagoa dela esateko ez dugu erdal gramatika ikustea besterik. «Izan»-ekin formatzen edo ta-

xutzen diren aditz konposatuek konkordantzia erregelak jarraitzen dituztela ikasi izan dugu beti, hau da, sujetua akzioaz inplikatzen delako. Sujetua kasu honetan NI-a dugu.

Bestalde, zer esan esaldi bi hauei buruz?

«Tiene dolor» eta «está dolido(a)». «Eduki» esatean, mina NI-aren gain dagoela ikus dezakegu, hau da, kanpotik datorkigu mina, minaren menpe nago. «Izan» erabiltzean berriz, NI-tik dator mina, datorkit hain zuzen, NI-a da minaren arduradun egiten dena, guztiz subjektiboa eta gizabanakoa dela sentitzen dugu.

Berdin gertatzen da «tener una condena» eta «estar condenado» esatean. Badirudi «tener una condena» inposatua dela, gainera datorkiguna dela baina «estoy condenado» esatean, neregan jausten da errua.

Literatur kritika aldetik ere «la ciudad tene un hogar» edo «la ciudad es un hogar» esatean, burukomin handiak ekarri ditu esaldi honek. Badago esaldi bion arteko ñabardurarik.

Azkenik beraz, beste esaldi bitxi batez arituko naiz:

«Tengo que ir» euskaraz bi eratara itzultzen eta erabiltzen da eta orain arte esandako guztiarekin ados jarraitzen du.

«Joan behar dut» esaten dugunean, derrigortasuna bati buruz hitzegiten dugu. Hau da, derrigortasun edo ardura horren menpe egongo da NI-a. Esaldi honen erabilera beraz, honela kokatuko genuke:

«Hiruretan joan behar dut» eta hiruretan han egongo naiz. Behar izanaren menpe gelditzen da NI-a.

«Joan behar naiz» esaten dugunean berriz, NI-a ez da derrigortasunaren menpe gelditzen. NI-aren identitatea ez da galtzen. Beharrak edo behar izanak hor jarraitzen du baina NI-aren be-

tebharra «up to ME» da. NI-ari dagokio. Beraz, honela kokatu-
ko genuke:

«Joan behar naiz» baina beharbada ez naiz joango. Errua
NI-arengan jausiko litzateke, baina NI hori ez da hizkuntza pos-
sesiboaren menpe geldituko.

Ana Urkiza